

ORDENANTZA FISKALA, ELIKAGAIEN ETA INGURUMEN-LAGINEN GAINeko SAIKUNTZA KIMIKO ETA MIKROBIOLOGIKOAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

17. ordenantza

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Lehen Tituluko IV. Kapituluko 7. atalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 12. artikuluan emandako baimenaren babesean ezarri da.

Zerga-egitatea

2. artikulua.- Zerga-egitatea da Udaleko Laborategiak saiakuntza kimiko eta mikrobiologikoak eta halako beste edozein egitea.

Zerga ordaintzeko betebeharra

3. artikulua.- Ordaintzeko betebeharra sortzen da analisisetarako eskabidea aurkezten denean, eta emaitzak ez dira entregatuko dagokien ordainketa egin arte.

Nork ordaindu behar

4. artikulua.- Pertsona fisikoek zein juridikoek eta, nortasun juridikorik izan gabe ere, batasun ekonomikoa edo ondare banandua osatzen duten erakundeek dute zergadun gisara tasa ordaintzeko betebeharra, baldin eta Ordenantza honen xede diren zerbitzuak eskatu eta erabiltzen badituzte.

TARIFA-ERANSKINA

I. EPIGRAFEA – UDALEKO LABORATEGIA

I.1. Saiakuntza kimikoak

URETAN:

- pH-a neurtzeko elektrometria	10,35 euro
- Uheretasuna neurtzeko turbidimetria	10,35 euro
- Eroankortasuna neurtzeko konduktimetria	10,35 euro
- Kloroa, librea eta osotara, neurtzeko UV-VIS espektrofotometria (xurgapen ultramore ikusgaizko espektrofotometria)	29,25 euro
- Permanganatoarekiko oxidakortasuna neurtzeko bolumetria	12,25 euro
- Amonioa neurtzeko UV-VIS espektrofotometria	29,65 euro
- Nitritoak neurtzeko UV-VIS espektrofotometria	18,80 euro
- Nitritoak neurtzeko UV-VIS espektrofotometria	29,25 euro
- Alkalinitasuna neurtzeko bolumetria	12,70 euro
- Guztizko gogortasuna neurtzeko bolumetria	12,65 euro
- Kaltzioa neurtzeko bolumetria	12,70 euro
- Magnesioa neurtzeko bolumetria	25,35 euro
- Kloruroak neurtzeko bolumetria	12,70 euro
- Sulfatoak neurtzeko errendimendu handiko likidoen kromatografia (HPLC) eroankortasun-detektagailuz	34,80 euro
- Uretako metalen neurtzea (Al, As, Cd, Cu, Fe, Mn, Pb) AA bidez, grafitozko labean	59,10 euro
- Uraren edangarritasuna neurtzeko analisi kimikoa (pH-a, eroankortasuna, uheretasuna, kloroa –librea eta osotara–, Permanganatoarekiko oxidakortasuna, amonioa eta nitritoak)	96,50 euro

ELIKAGAIETAN ORO HAR:	
- Hezetasuna 102°-tan neurtzeko grabimetria	8,35 euro
- Errautsak neurtzeko grabimetria	8,35 euro
- Proteinak neurtzeko bolumetria	33,40 euro
- Sulfitoen gaineko azterketa (kualitatiboa)	15,00 euro
- Sulfito kopurua zehazteko bolumetria (Monier-Williams metodoa)	34,05 euro
- Kontserbatzaileak neurtzeko errendimendu handiko likidoen kromatografia (HPLC) DAD diodo-sareen detektagailuz (azido bentzoikoa eta sorbikoa, metilparabenak eta etilparabenak)	103,90 euro

ELIKAGAIETAN (ANALISI BEREZIAK):	
Olioetan:	
- Azidotasuna neurtzeko bolumetria	15,00 euro
- Peroxidoen indizea neurtzeko bolumetria	19,15 euro
- Errefrakzio-indizea	10,90 euro
- K232, K270, □K neurtzeko UV-VIS espektrofotometria	18,80 euro
- Frakzio polarra berotutako olioetan neurtzeko zutabe-kromatografia eta grabimetria	50,20 euro
Haragikietan	
Nitratoak eta nitritoak neurtzeko errendimendu handiko likidoen kromatografia (HPLC) DAD diodo-sareen detektagailuz	47,20 euro
- Haragikietan espezieak zehaztea enzima-immunosaiakuntza bidez	50,00 euro
Esne eta esnekietan:	
- Gantza (Gerber metodoa)	12,70 euro
- Laktosa neurtzeko bolumetria	26,65 euro
- Esnekietan espezieak zehaztea enzima-immunosaiakuntza bidez	50,00 euro
Eztian:	
- Hezetasuna (errefrakzio-indizea)	10,70 euro
- Fruktosa, glukosa eta sakarosa neurtzeko errendimendu handiko likidoen kromatografia (HPLC) errefrakzio-indizearen detektagailuz	74,80 euro
Arrainetan eta arrantza-elikagaietan:	
- Azido borikoaren gaineko ikerketa (kualitatiboa)	14,55 euro
- Merkurioa neurtzeko lurrun hotzeko absortzio atomikoko espektrofotometria	67,70 euro
- Metalak (Cd, Pb) arrantzako produktuetan neurtzeko AA espektrofotometria (grafitozko labea)	67,70 euro
- Histamina neurtzeko likidoen kromatografia (HPLC) diodo-sareen detektagailuz	73,00 euro

I.2. Mikrobiologiako saiakuntzak

URETAN:	
- Aerobio-kontaketa, plakan, 22° C-tan	21,30 euro
- Escherichia coliren eta koliformeen guztizko kontaketa, plakan, iragazketa bidez	50,45 euro
- Hesteetako estreptokokoaren kontaketa iragazketa bidez	21,35 euro
- Clostridium perfringens-en kontaketa plakan, iragazketa bidez	31,55 euro
- Uraren edangarritasuna neurtzeko analisi mikrobiologikoa (Aerobioak, 22°-tan, Escherichia coli B-glucuronidase (+) eta koliformeen guztizkoa). <i>Clostridium perfringen</i> eta hesteetako <i>Enterococcus</i>)	90,70 euro

ELIKAGAIETAN:	
- Lagina prestatzea	12,05 euro
- Aerobio mesofiloen kontaketa plakan, 30° C-tan	21,30 euro
- Enterobakterio-kontaketa plakan, 37° C-tan	21,30 euro
- Echerichia koli B-glucuronidase (+) (kontaketa plakan)	31,55 euro
- Staphylococcus (koagulasaren (+) kontaketa plakan)	31,55 euro
- Salmonellaren gaineko ikerketa (<i>Salmonella spp</i> , 25 g-tan)	64,20 euro
- <i>Listeria monocytogenes</i> -en gaineko ikerketa 25 g-tan	57,90 euro
- <i>Listeria monocytogenes</i> -en guztizko kontaketa plakan	50,55 euro

Bestelako analisiak egiteko, galdetu laborategian.